

BESTELAKO XEDAPENAK

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA

1263

EBAZPENA, 2026ko martxoaren 5ekoa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «Bilboko Hiri Trenbidearen Kabiezeseko kotxetegiaren oinarritzko proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.

2026ko otsailaren 13ko Ebazpenaren bidez, «Bilboko Hiri Trenbidearen Kabiezeseko kotxetegiaren oinarritzko proiektua» onetsi zen. Ebazpena 2026ko otsailaren 27an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (40. zk.).

Proiektuaren helburu nagusia da Kabiezeseko etorkizuneko kotxetegiaren eta haien trenbide plataformaren oinarritzko proiektua garatzea, Ballonti ibarbidearen eta A8aren arteko eremuan. Oinarritzko proiektu horrek eraikuntza proiektuaren aurreko fasea osatzen du, eta azpiegitura berriaren ezaugarri geometrikoak zehazten ditu, baita ukitutako ondasun eta eskubideen definizio zehatza ere, Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazioa biltzen du. Horretarako, desjabetzearen eranskinean ageri dira lurzatiaren zerrenda eta planoak.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituren arloko jarduketak gauzatzeko beharrezkoak diren desjabetze-espedituentz izapidetzeko, Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 11.2.c) artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera – lege hori abenduaren 19ko 26/2022 Legeak aldatu zuen–, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten trenbide-lineen proiektuak, horien tartekak edo tren-azpiegituraren beste elementu batzuk eraikitzeko proiektuak edo lehendik zeuden azpiegiturak aldatzeko proiektuak onartzen direnean, onespenez berekin ekarriko du onura publikoaren edo gizarte-interesaren deklarazioa, lursail horiek okupatu beharra izatea eta okupazio hori premiazkotzat deklaratzeko, ukitutako eta identifikatutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizituki berekin dakarren arren proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrean jarri behar dela ezartzen dute, nahi duenak alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan ditzan, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zein diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak aztertutik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aurrekarietan aipatzen diren «Bilboko Hiri Trenbidearen Kabiezeseko kotxetegiaren oinarritzko proiektua»ren obrak gauzatzeko nahitaezko desjabetzearen espeditentzia hastea. Ukitutako ondasun eta eskubideak ebazpen honen eranskinean daude zehaztuta.

Bigarrena.– Jendaurrean jartzea «Bilboko Hiri Trenbidearen Kabiezeseko kotxetegiaren oinarriko proiektuak» ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ebazpen hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezkeen, okerrik baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 19.2 artikulua eta harekin bat datozenek. Alegazioak Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira, idatziz (Donostia kalea 1, Lakua 1, 01010 – Vitoria-Gasteiz).

Aipatutako epean, ondasun eta eskubideen zerrenda Ortuellako udaletxeko iragarki-oholean ere jarriko da jendaurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 5a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

2026ko martxoaren 23a, astelehena

ERANSKINA

Ortuellako Udalerrian.

Finka zk.	Katastroko erref.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Izaera
			Erabateko desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi-baterako okupazioa	
001	02-340	Julian Sarasola Gaviñaren jaraunsleak, Rosa Sarasola Gaviñaren jaraunsleak, Julia Sarasola Gaviñaren jaraunsleak, Guillermo Sarasola Gaviñaren jaraunsleak eta Salvador Sarasola Gaviñaren jaraunsleak.	66	0	0	Belardia
002	02-361	Sitfer Task Rein STR Asociados, SL	400	0	0	Belardia
003	02-362	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	315	0	0	Belardia
004	02-364	Guillermo Arbuló Egusquiza	573	0	0	Belardia
004 CULT	02-364	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	573	0	0	Belardia
005	02-365	Julian Sarasola Gaviñaren jaraunsleak, Rosa Sarasola Gaviñaren jaraunsleak, Julia Sarasola Gaviñaren jaraunsleak, Guillermo Sarasola Gaviñaren jaraunsleak eta Salvador Sarasola Gaviñaren jaraunsleak.	745	0	0	Belardia
005 CULT	02-365	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	745	0	0	Belardia
006	02-363	Jesusa Ortiz Leguinaren jaraunsleak.	196	0	0	Belardia
007	02-369	Miren Arantzazu, Victor Jose, Angel, Jone Miren eta Guillermo Elortegi Urquijo.	3134	0	0	Belardia
007 CULT	02-369	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	3134	0	0	Belardia
008	02-370	Rosario Alzaga Santamaria eta Primitiva Basarrate Urioste.	1698	0	0	Belardia
009	02-368	Jose Maria Elortegui Echanizen jaraunsleak.	1360	0	0	Belardia
010	02-367	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	1202	0	0	Baratzea eta belardia
011	02-441	Ortuellako Udala.	736	0	0	Bidea
012	02-349	Salvador Idiondo Castañosen jaraunsleak.	773	0	0	Belardia
012 CULT	02-349	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	773	0	0	Belardia
013	02-350	Gregorio eta Heliodoro Jauregui Urruticoeche.	701	0	0	Belardia
013 CULT	02-350	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	701	0	0	Belardia
14	02-384	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	7	0	0	Belardia
015	02-434	Bizkaiko Foru Aldundia, Ondare zerbitzua.	3	0	0	Belardia
016	02-447	Bizkaiko Foru Aldundia	39	0	0	Bidea
017	02-445	Ortuellako Udala	15	0	0	Bidea
018	02-441	Ortuellako Udala	87	0	0	Bidea
019	02-334	Artiach Galletas, SA	139	0	0	Belardia
020	02-441	Bizkaiko Foru Aldundia	139	0	0	Bidea

2026ko martxoaren 23a, astelehena

Finka zk.	Katastroko erref.	Jabea	Eragin mota (m ²)			Izaera
			Erabateko desjabetzea	Zortasun iraunkorra	Aldi-baterako okupazioa	
021	02-371	Milagros Escobal Urruticoechearen jaraunsleak.	2774	0	0	Belardia
021 CULT	02-371	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	2774	0	0	Belardia
022	02-372	Maria De Los Angeles Rementeria Maraion, Garro Rementeria anai-arrebak eta Consuelo Vega Lopez.	1605	0	0	Belardia
022 CULT	02-372	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	1605	0	0	Belardia
023	02-373	Gutierrez Sarasola anai-arrebak, M. ^a Carmen Sarasola Abiega, M. ^a Teresa eta Magdalena Sarasola Ruiz, Sarasola Quintana anai-arrebak eta Peral Sarasola anai-arrebak.	1876	0	0	Belardia
023 CULT	02-373	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	1876			Belardia
024	02-375	Miren Arantzazu, Victor Jose, Angel, Jone Miren eta Guillermo Elortegi Urquijo.	1221	0	0	Belardia
024 CULT	02-375	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	1221	0	0	Belardia
025	02-381	Julian Sarasola Gaviñaren jaraunsleak, Rosa Sarasola Gaviñaren jaraunsleak, Julia Sarasola Gaviñaren jaraunsleak, Guillermo Sarasola Gaviñaren jaraunsleak eta Salvador Sarasola Gaviñaren jaraunsleak.	546	0	0	Belardia
026	02-380	Jesusa Ortiz Leguinaren jaraunsleak.	393	0	0	Belardia
026 CULT	02-380	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	393	0	0	Belardia
027	02-382	Bizkaiko Foru Aldundia, Ondare zerbitzua.	188	0	0	Belardia
028	02-444	Ortuellako Udala.	643	0	0	Bidea
029	02-376	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	4925	0	0	Belardia
030	02-377	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	1117	0	0	Belardia
031	02-378	Maria Angeles Elortegi Echaniz.	4447	0	0	Belardia
032	02-379	Landako Mendi SL M ^a Nieves Loizaga, Eugenio Avellanal y Manuela Cebollas.	1507	0	0	Belardia
033	02-401	Sofia Elortegi Echaniz.	1345	0	0	Belardia
034	02-402	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	9	0	0	Belardia
035	02-399	Promociones Lachaba 2004 SL	441	0	0	Belardia
036	02-400	Miren Arantzazu, Victor Jose, Angel, Jone Miren eta Guillermo Elortegi Urquijo.	417	0	0	Belardia
036 CULT	02-400	Jose Maria, Luis Fernando eta Estanislao Ortiz Setien.	417	0	0	Belardia
037	02-435	Bizkaiko Foru Aldundia	1427	0	0	A-8 Kantauriko autobia
038	02-374	Albiz Rent, SL	217	0	0	Belardia